

HEZKUNTZAKO KONTSEILARIAREN FORU AGINDUAREN PROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, ESKOLA-GARRAIOA ARAUTZE- KO PROZEDURARI HASIERA EMATEN DIONA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, foru lege baten aurreproiektua edo erregelamendu baten proiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egin behar da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen herritarrek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin zein arazo konpondu nahi diren.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21. artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek argitara eman behar dituzte kontsulta publikoak, foru legeen aurreproiektuak eta erregelamenduen proiektuak egin aurretik planteatutakoak. Aurreikuspen horiek betez, herritarrek, erakundeek eta elkarrekin, egoki iritzi gero, igor ditzakete planteatutako arau-proposamenaren gainean dituzten ekarpenak. Ekarpenean aurkezteko epea 15 egun baliouduneko da, argitaratu eta biharamunetik aitzina.

a) Konpondu nahi diren arazoak

Hezkuntzako kontseilariaren azaroaren 13ko 102/2017 Foru Aginduaren bidez arautzen dira eskola-garraioaren zerbitzuaren antolaketa eta haren funtzionamendua, eta eskola-jantokirako banakako laguntzak Nafarroako Foru Komunitatean.

Bizikidetzako eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoira 2019-2023 aldirako programa akordioan honako hau zehazten da 3. atalean (Programaren gutxiengo edukia), 3.1. azpiatalean (Ezagutza, hezkuntza eta aukera-berdintasuna), 50. puntuan: “Garraioa eskubide oso gisa aitortzea ikastetxe publikoetako Batxilergoko eta OLHko ikasleei. Salbuespeneko neurriak hartzea beren ezaugarriengatik hala behar duten herrietan”.

Akordio hori praktikan jartzeak eskatzen du aipatutako foru aginduan jasotako erregulazioa aztertzea, Batxilergoko eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleei buruzko aurreikuspen zehatz horiek sartzeko, bai eta salbuespenak aurreikusteko irizpideak zehazteko ere.

b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.

Prozeduraren beharra eta egokitasuna, adierazi den bezala, akordio horretatik eratorzen da, akordioa betetzeko eta, indarrean dagoen araua aplikatu bitartean, eskola-garraioko zerbitzua behar bezala emateko disfuntzionaltzat jo diren alderdiak hobetzeko.

c) Arauaren helburuak.

Onartu nahi den arauaren helburua da Batxilergoko eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleei eskola-garraioko zerbitzua emateari dagokionez Nafarroan dagoen eskaerari erantzutea, akordioan jasotako aurreikuspena betez eta, araudia aldatzeko aukera aprobetxatuz, behar diren alderdiak hobetuz.

d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Gaia arautua dago jada erregelamendu-mailako arau baten bidez; hain zuzen ere, Hezkuntzako kontseilariaren azaroaren 13ko 102/2017 Foru Aginduaren bidez, eta, beraz, ezinezkoa da segurtasun juridiko handiagoa ematen duten aukera ez-arautzaileak aurreikustea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 9an

HEZKUNTZAKO AZPIEGITUREN ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Eneko Ardaiz Ganuza